

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa

GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA,

BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa

Native speakers of Basque, non-native speakers and *hika*

GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

garbine.bereziartua@ehu.eus

BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

benat.muguruza@ehu.eus

JASOA: 2019/07/12 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/09/04 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/11/21

Eskerrak eman nahi dizkiegu UEMARI eta Gipuzkoako Foru Aldundiari ikerketa hau diruz laguntzeagatik. Juanito Etxeberriari ere bai, estatistikaren esparruan eskainitako laguntzagatik.

LABURPENA

Lan honek azken urteotan hiztun berrien gaineko ikerketek emandakoa tratamenduen eremura ekartzea du xede. Solaskideari hika egin ala ez aukeratzeko irizpide nagusiak aztertu ditugu, eta antzekotasunik ba ote dagoen gatzelaniaz egitetik euskaraz egitera pasatzen direnen eta zuka egitetik hika egitera pasatzen direnen artean. Bi datu-sorta baliatu ditugu: batetik, 850 azpeitiar helduk erantzundako galde-sorta; bestalde, 12 bertsolariri egindako elkarrizketa sakonak. Eraitzen artean ikusi dugu hika egiteko irizpideetako bat dela solaskidea euskaldun zaharra izatea.

ABSTRACT

This study aims at applying the research done on new speakers in recent years to the field of forms of address. We analyzed the main criteria employed to decide whether to use *hika* or not with the interlocutor, and if there is any similarity among those new speakers who start to use Basque and among the speakers who start to use *hika*. We resorted to two sets of data: a questionnaire answered by 850 adults in Azpeitia, and interviews with 12 *bertsolaris*. In the results we found that the criteria to address in *hika* include the interlocutor being a native Basque speaker.

Gako-hitzak: hika; hiztun berriak; benetako; kotasuna; hizkuntza-muda; bertsolaritza.

Keywords: *hika*; new speakers; authenticity; linguistic muda; *bertsolaritza*.

1. Sarrera

Hizkuntza gutxitu bat dagoen testuinguru hainbatetan garatu da *hiztun berria* kontzeptua azken urteotan, baita *hiztun natibo* kontzeptuarekin alderatuta izan ditzakeen bizipen eta mugak ere. Euskara etxean jaso ez dutenen egoera aztertzen ari dira gurean ere, eta orain arte ateratako ondorioak hitanoaren erabilerarekin erkatuko ditugu lan honetan. Euskal Herriko txoko gehienetan ez da ia erabiltzen tratamendu hori, baina zenbait herri eta girotan bizi-bizirik dirau oraindik ere.

Besteak beste, Echeverriak (2003) iradoki du benetakotasun-maila handia ematen duela hika jarduteak, eta euskalkian mintzo diren euskaldun zaharrekin lotzen dugula batik bat. Lan honetan ikusi nahi dugu hiztun natiboari esleitzen zaion benetakotasunak edo autentikotasunak zer paper jokatzen duen hartzaileari hika egin ala ez hautatzean. Horrez gain, hitanoa euskal komunitatean kokatzen den elementu bat izan arren, zukatik hikara salto egite hori hizkuntza-ohituren aldaketa-fenomenoen baitan ikusten dugu eta ikuspuntu horretatik uste dugu interesgarria izan litekeela gure kasu partikularrean gertatzen dena ezagutzea, hortik ateratakoak gaztelania/euskara edo, oro har, hizkuntza nagusia / hizkuntza gutxitua binomioetan gertatzen diren egoeretara transferitzeko.

Orri hauetan aurkeztuko dugun ikerketaren berri lau atal nagusitan emango dugu: lehenik eta behin, ikerketaren oinarritzat hartu ditugun teoriak eta kontzeptuak argitzen ahaleginduko gara; ondoren, ikerketa gauzatzeko erabili dugun metodologia deskribatuko dugu; segidan, ikusi ditugun emaitzak zein izan diren azalduko dugu; eta, azkenik, atera ditugun ondorioak mahaigaineratuko ditugu.

2. Marko teorikoa

Esku artean dugun ikerlana egiteko hainbat kontzepturen gainean eraikitako teorietara jo dugu. Gure ikerketaren oinarritzat hartu ditugun teoriak eta kontzeptuak argitzen saiatuko gara ondorengo lerroetan.

2.1. Hitanoa: ezaugarri linguistikoak eta soziolinguistikoak

Sareko euskal gramatikan (Alberdi, d. g.) esaten zaigunez, hitanoa euskararen tratamenduetako bat da, lagun artean erabili ohi da eta solaskidea aintzat hartzen du. Alegia:

Euskaraz, solaskidea edo hizketa-laguna tratatzeko modu batzuk ditugu. Alde batetik, pertsona-izenordain bat baino gehiago daude hizketa-lagunari erreferentzia egiteko: hi, zu, xu, berori. Beste alde batetik, izenordain jakin batzuk aukeratuz gero (hi, adibidez), aditz berezi bat –«alokutiboa» deritzona– erabili beharra dago: nor, nori eta nork sintagmei dagozkien pertsona-markez gainera, hizketa-lagunari dagokion pertsona-marka agertuko da halako aditz alokutiboetan.

Hitanoa lagun arteko tratamendua da eta bi ezaugarri uztartzea du bereizgarri: *hi* izenordaina aukeratzen da solaskideari erreferentzia egiteko eta aditz alokutiboak erabili behar dira ezinbestean. Eta hitanoaren barruan gizonezkoekiko tratamendua (*toka*) eta emakumezkoekikoa (*noka*) bereizten dira.

Ikuspegi soziolinguistikotik hitanoa aztertu dutenetako bat Alberdi (1986, 1993, 1994, 1996) izan da. Bere lanen artean hitanoaren erabilera baldintzatzen duten oinarriko aldagai soziolinguistikoen zerrenda bat proposatu zuen (Alberdi, 1993). Aldagai horien artean hauek aipatzen zituen: hizketa-gaia, hizketaldiaren testuingurua, adina, belaunaldia, sexua, senidetasun-maila, dialektoa, talde-kidetasuna, aginpidea eta sentipenezko elkartasuna edo elkartasun psikologikoa. Hitanoa non eta nork erabiltzen duen ere aztertu zuen (Alberdi, 1994). 1. taulan ikus daitezke hitanoaren erabileraz esaten dituenak:

1. taula. Hitanoaren erabilera baldintzatzen duten aldagai soziolinguistikoak
(Alberdi, 1994)

Orokorrean

- Tratamendu-aldaketaren aukera itxita ez egon arren, pertsona berarekin tratamendu bat erabili ohi da eta egiten den aukera egiten dela, hasierako aukera hori bihurtu ohi da ohiturazko, *nola hasi, hala segi* printzipioaren arabera.
- Tratamendu-aldaketari dagokionez, ezagutu berriarekin euskaraz ez da aldameneko erdaretan bezain azkar aldatzen lagunarteko tratamendura.

Familiaren baitan

- Oro har familiarena da hitanoa maizen agertzen den esparrua, bereziki senideen artean. Baina ohikoak dira asimetriak (gurasoek seme-alabei edo anai-arreba helduagoek gazteagoei hika egin eta bueltan zuka jasotzea).
- Ahaidetasun-maila urrundu ahala beherantz egiten du hikako formak (guraso eta seme-alabek osatutako familia-gunean gehiago egiten da urrunagoko ahaideen artean baino).
- Familiaren baitan adina, sexua eta ahaidetasun-maila dira aldagairik erabakigarrienak.
- Ezkondutako bikoteen artean zuka egin ohi da, aurrez hika egin izan bazuten ere.
- Haurrekiko jokabidean ez dago batasunik tratamenduaren erabileraz; batzuek txikitatik egiten diete hika eta beste batzuek koskortu arte ez.

Familia-tik at

- **Kidetasuna.** Gutxi dira kidesunak gabe hika aritzen diren euskaldunak. Hurbiltasun psikologikoa, elkarrenganako estimua edo adiskidetasuna ez dira ezinbesteko baldintzak hitanorako, baina guztiz lagungarri gertatzen dira.
- **Adiskidetasuna.** Hiketaren eragile garrantzitsuenetariko bat da, garrantzitsuena ez bada.
- **Adina.** Nagusitasunak erraztu egiten du hitanoaren erabilera eta gazteago izateak oztopatu.

- **Sexua.** Orokorrean sexu-ezberdintasuna bi pertsonak elkarren arteko harremana hika egiteko aukeraren eragozgarri handia izan ohi da.
- **Maila.** Mendekotasunezko edo berdintasunezko harremanaren arabera (maila edo estatuta) bereizten dira tratamenduak eta mailazko desberdintasunen aurrean gehienetan hikako tratamendua baztertzeko da eta normalean ez dira asimetriak gertatzen.
- **Testuingurua.** Ohituraren indarrak ezean testuinguruak baldintzatu dezake tratamendu baten edo bestearen erabilera. Talde baten aurrean aritzeak edo harreman baten hasierak ez dute biderik ematen hika aritzeko; aldiz, mendian edo tabernan errazagoa izan daiteke, tokiak desberdintasunak ezabatu eta kidesotasunak sorrarazten baititu.
- **Hizkuntzako urruntasuna.** Zenbaitek bere herrira edo euskalkira mugatzen du hitanoaren erabilera, izan hitanoa betidaniko ezagun eta kideekin erabiltzeko bakarrik dela ulertzen dutelako edo izan urruntasun dialektalaren gisako hizkuntzako arrazoiengatik.
- **Joera mimetikoa.** Bi zentzutan gerta daiteke: batzuetan ezohiko edo ausardiazko hitanoari berdinduz erantzuten; bestetan, bi adiskideetako batek hika egiten ez bada zuka nagusituko da, asimetria faltsu baten desegokitasuna saihestearren.
- **Psikologiak ere eragiten du.** Begikotasunak, gogaidetasunak eta izaera-berdintasunak hika aritzea bultzatzen dute.

2.2. Benetakotasuna

Hizkuntza bateko hiztun natiboei eta ez-natiboei buruz egin diren ikerketetan azaleratzen den kontzeptuetako bat benetakotasunarena da (Hornsby, 2005; O'Rourke & Ramallo, 2011; Brennan & O'Rourke, 2018). Woolarden (2008) arabera, hizkuntza-aldaera bati benetakotasuna aitortzeko, aldaera hori jatorrizko adierazpidetzat hartu behar dute komunitateko kideek.

Urrutira joan gabe, geure testuinguruan bertan Ortegak, Urlak, Amorrortuk, Goirigolzarrik eta Urangak (2015, 86-87. or.) diote «new speakers by and large consider they will never be like native speakers», baina, hala ere, dirudienez benetakotasun horretara hurbiltzen laguntzen dute euskara egunerokotasunean erabiltzeak, euskal hiztunen harreman-sareetarako sarbidea edukitzeak edota euskalkiak erabiltzeak. Hiztun natiboen benetakotasun horrekin lotuta agertzen diren ezaugarritzat aipatzen dituzte bai euskalkiak erabiltzea, bai erregistro informala erabiltzea.

Ildo horri jarraikiz eta gure ikerketa-gaiarekin lotuz, Echeverriak (2001) honako esaten du: «'authentic' Basque identity is associated with vernacular Basque, of which the most 'pragmatically salient marker' (Errington, 1985, 340. or.) is the singular second-person pronoun, 'hi'». Alegia, benetako euskaldunaren identitatea euskalkia erabiltzearekin lotzen dela, eta benetakotasun horren ezaugarriak nabarmenena hitanoa dela.

Benetakotasunaren afera bertsolaritzaren eremura eramanda, Artetxek (2018) esaten du bertsolari gisa legitimitatea nahi duenari euskaldun zahar *passinga* eskatzen diola kanonak. Eta *passing* hori lortzeko benetakotasunarekin lotzen diren ezaugarriak eduki behar dira (Piller, 2002). Baina, Artetxek (2018, 64. or.) esaten duenez, bertsolari legitimoaren figurari esleitzen zaizkion ezaugarriak aldatzen joaten dira garaiz garai: «70eko hamarkadan esaterako, benetako bertsolaria ez zen emakumea. Ez zen hiritarra

edo erdal gunekoa. Ez zen kanpotik etorria. Ez zen bertso-eskolan ikasia. Eta ez zen hiztun berria». Eta egungo egoerari buruz honakoa dio:

[...] gaur egun bertsolariaren irudia ez da lehen bezain monolitikoa. Bertsolaria emakumea ere izan liteke. Bertsolaria hiritarra ere izan liteke. Eta hiztun berria ere bai. Baina benetakotasunaren balioan oinarritzen den ideologia ez da erabat gainditu, eta ezaugarriok erabat baztertzaila izateari utzi badiote ere, legitimotasun handiagoa du oraindik, *a priori*, emakumea ez denak, hiritarra ez denak eta hiztun berria ez denak (Artetxe, 2018, 65. or.).

2.3. Hizkuntzak, identitateak eta hizkuntzekiko lotura emozionalak

Benetakotasuna bezalako kontzeptuek harreman estua daukate identitatearekin. Artetxek (2018) legitimoa den figurari esleitzen zaizkion ezaugarriak denboran zehar aldatzen direla zioen moduan, identitatearen inguruan ere gisa horretako ideiak geroz eta indar handiagoa hartzen ari dira. Esate baterako, Cenozen (2009, 174. or.) hitzek ideia horri heltzen diote: «...individuals continually construct and reconstruct multiple identities. These identities, which are fluid and mutable, not only change over time but also across situations». Alegia, identitatea ez dela finkoa bizitzan zehar, aldakorra baizik.

Identitatea finkoa ez den moduan hizkuntzekiko lotura emozionalak ere ez direla betierekoak erakutsi dute hainbat ikerketak. Eleaniztasunaren esparrutik Dewaelek (2013, 6. or.) diosku «...while the L1 is the language of the heart for many multilinguals, it is not necessarily a permanent one». Eta etxean bertan ere ikuspuntu soziolinguistikoaren baitan Kasaresek (2015, 22. or.) gauza bera azpimarratzen du: «...ama edo lehen hizkuntza izateak ez dakar *per se* mintzaira hori hiztunaren bizitzan nagusia izatea, ez ohikoena edo usuena, ez eta maiteena edo nahiena ere...».

Hizkuntzekiko daukagun atxikimendua aldakorra izan daitekeela dioen ideiarekin lotura dauka Pujolarrek eta Gonzalezek (2013) garatu duten *hizkuntza-muda* kontzeptuak. Katalunian kokatutako ikerketetan lehen hizkuntza gaztelania daukaten hiztunak beren bizitzako garai jakin batzuetan katalana erabiltzen hasten diren egoerak aztertu dituzte. Alegia, testuinguru jakin batzuetan edo pertsona jakin batzuekin beren hizkuntza-errepertorioan zegoen beste hizkuntza bat erabiltzen hastea. Eta muda horiek gertatu ohi diren sei une biografiko identifikatu dituzte: (a) lehen hezkuntzan sartzeko unea; (b) bigarren hezkuntzan sartzeko unea; (d) unibertsitatean sartzeko unea; (e) lan-munduan sartzeko unea; (f) familia berri bat osatzeko unea; eta (g) guraso izateko unea.

2.4. Hiztun berrien papera

Benetakotzat edo legitimotzat hartzen diren figurak, identitateak eta hizkuntzekiko lotura emozionalak aldatzen joaten direla ikusi dugu eta, beraz, agertokian sartzen diren figura berriek joka dezaketen paperak garrantzi handia izan lezakeela ikusten hasiak gara hainbat testuingurutan.

Bertsolaritzaren eremuan Artetxek (2018, 65. or.) dio bertso-eskolako bertsolariak legitimatu ezean bertsolaritza desagertzera kondenaturik zegoela, baina «denbora tar-te aski laburrean, bertso-eskolan ikasia izatea, onartu beharreko ezaugarri bat izatetik bertsolari legitimoaren ezaugarri izatera heldu da».

Ortegak *et al.*-ek (2015) azaltzen dutenez, euskarari dagokionez ere ahalegin handiak egin dira euskararen gainbehera irauli eta familia bidezko transmisioa jasotzeko aukerarik izan ez dutenek euskara ikas dezaten. Eta horrek euskaraz hitz egiten duen populazioa izugarri haztea ekarri du. Hornsbyk (2005, 214. or.) bretoieraren esparrua ikertu du eta dioenez «it may be that the *néo-bretonnants* will keep the language alive until such a time that conditions will change so that it is spoken more widely than it is now». Eta Augustyniak eta Highamek (2019, 515. or.) Euskal Herria eta Gales oinarri hartuz esaten dute «migrants new speakers become another important set of actors in the revival of minoritized sub-state languages».

Gaia hitanoaren eremura ekarriz, Ozaitak (2014) eta Beitiak (2017) *hitano hiztun berriak* dituzte mintzagai. Gainera, Beitiak (2017) dio hiztun horiek hika egiten ikasteko formulak beste hizkuntza bat ikastea nahi dugunean erabiltzen ditugun formula berberak direla.

Atal teorikoaren hasieran hitanoaren ezaugarri linguistikoak deskribatu ditugu eta ezaugarri soziolinguistikoei buruz egindako ikerketek erakutsitakoen berri eman dugu. *Benetakotasun* kontzeptuari dagokionez, hizkuntzen zenbait ezaugarri autentikotasun horrekin lotzen direla eta hitanoak paper hori bete izan duela ikusi dugu, baina bertsolaritzaren esparruan benetakotasunarekin lotzen diren ezaugarriak aldatzen joan daitezkeela ere adierazi dugu. Hizkuntzek hiztunen identitatearen eraikuntzan daukaten funtzioari eta hiztunek hizkuntzekiko eratzen dituzten lotura emozionalei buruz ere beste horrenbeste gerta litekeela ikusi dugu. Eta hori guztia kontuan hartuta, nabarmendu dugu hizkuntza bateko edo, kasu honetan, hizkuntza baten baitako tratamendu zehatz bateko hiztun berriek paper garrantzitsua eduki dezaketela.

3. Metodologia

3.1. Ikerketa-galderak

Hizkuntza bateko hiztun natiboen eta ez-natiboen arteko dikotomia gaitzat hartu eta horrekin lotura izan dezaketen zenbait kontzepturen gainean egindako ikerlanen berri izan ondoren, hauek dira gure azterlana zedarrizten duten bi ikerketa-galderak:

1. Zein irizpideren arabera erabakitzen du hiztunak solaskideari zuka edo hika egitea? Hitanoaren erabilera baldintzatzen duten aldagai soziolinguistikoen berri izan dugu teoriaren atalean (Alberdi, 1993) eta ikusitakoak guk egindako ikerketan jasotako datuekin bat egiten al duten ikusi nahi genuke.
2. Ba al dago parekotasunik zukatik hikorako eta gaztelaniatik euskararako hizkuntza-muden artean?
Izan hizkuntza batetik bestera edo izan, kasu honetan hizkuntza beraren baitan,

tratamendu batetik bestera, azken finean hizkuntza-ohiturak aldatzeko fenomenoarekin topo egiten dugula pentsa liteke. Eta fenomeno horrekin hiztunak bizi izaten dituen egoerak, izan kognitiboak, psikologikoak edo emozionalak, berberak ez badira ere antzekoak izango direla.

3.2. Datuak biltzeko tresnak eta lagina

Galdera horiei erantzuteko bi datu-sorta baliatu ditugu, bakoitza bere metodologia eta bere laginarekin. Batetik, Azpeitian hitanoaren gainean egiten ari garen ikerketan jasotako emaitzak; bestalde, hitanoak bertsolaritzan daukan lekua aztertzeko egindako ikerketan jasotakoak.

Azpeitiko ikerketako datuak eskuratzeko, ikerketarako berariaz diseinatutako galde-sorta baliatu dugu. Datu orokorrez gain, hitanoaren ezagutzaren, erabileraren eta iritzien gaineko 61 *item* jasotzen ditu galde-sortak, galdera itxi nahiz irekiekin. 18 urtetik gorako 850 azpeitiarrek emandako erantzunak hartu ditugu kontuan azterlan honetarako; horien arteko % 67,1 osatzen dute emakumezkoek eta % 32,9 gizonezkoek. Herritarrek galde-sorta bete zezaten bide ugari landu ditugu: sare sozialak, hedabideak eta ahoz ahoko komunikazioa. Alderdi kuantitatiboko nahiz kualitatiboko emaitzak erabiliko ditugu lan honetan.

Bertsolaritzaren eremuan egindako ikerketan 12 bertsolariri elkarrizketa sakonak egin dizkiegu eta hortik bildutako informazioa erabili dugu. Batez beste 47na minutu iraun dute erdi-egituratutako elkarrizketek. Horiek guztiak grabatu eta osorik transkribatu ditugu, ondoren analisiak egiteko. Lan honetarako interesgarriak diren pasarteak ekarri ditugu emaitzen atalera.

4. Emaitzak

Ikerlan honetan ateratako emaitzak proposatutako bi ikerketa-galderen arabera antolatuta aurkeztuko ditugu atal honetan.

4.1. Zein irizpideren arabera erabakitzen du hiztunak solaskideari zuka edo hika egitea?

Galdera honi erantzuteko hiru iturritatik jasotako datuez baliatuko gara: Azpeitiko ikerketan galde-sorten bitartez jasotako galdera itxien erantzunak, galde-sorta beraren bitartez jasotako galdera irekien erantzunak eta bertsolaritzaren gaineko ikerketako elkarrizketetan jasotako erantzunak.

Pertsona bati hika egin ala ez erabakitzeko jarraitzen diren irizpideei buruz galdetutakoan Azpeitiko parte-hartzaile helduek emandako erantzunen ehuneko orokorrak, emakumezko eta gizonezkoek eman dituzten erantzunak bereizita eta bi horien erantzunen artean dauden desberdintasunak esanguratsuak diren ala ez erakusten du 2. taulak.

2. taula. Pertsona bati hika egin ala ez erabakitzeko parte-hartzaile helduek jarraitzen dituzten irizpideen ehunekoak, orokorrean eta generoaren arabera banatuta; eta emakume eta gizonen erantzunen arteko desberdintasunen esanguratsutasunak

| | % | ♀ | ♂ | 2-test | Sig | Esang. |
|--|------|------|------|--------|------|--------|
| 1. Beste pertsona nire adinekoa edo ni baino gazteagoa izatea. | 39.3 | 30.9 | 56.4 | 12,715 | .000 | Bai |
| 2. Beste pertsonarekin konfiantza handia edukitzea. | 60.3 | 60.5 | 60 | .003 | .954 | Ez |
| 3. Beste pertsona gizonezkoa izatea. | 20.1 | 8.7 | 43 | 30.042 | .000 | Bai |
| 4. Beste pertsona emakumezkoa izatea. | 4.6 | 4.8 | 4.3 | .116 | .733 | Ez |
| 5. Beste pertsonak hika egiten jakitea. | 48.1 | 48.3 | 47.7 | .000 | 1 | Ez |
| 6. Beste pertsona ezaguna izatea. | 42.6 | 41.6 | 44.6 | .183 | .669 | Ez |

Galde-sortako galdera itxietan Azpeitiko herritarrek emandako erantzunetan ikusten da pertsona bati hika egin ala ez erabakitzeko garaian jarraitzen diren irizpideen artean gehien nabarmentzen direnak hauek direla: «Beste pertsonarekin konfiantza handia edukitzea» (% 60,3), «Beste pertsonak hika egiten jakitea» (% 48,1) eta «Beste pertsona ezaguna izatea» (% 42,6). Eta hiru irizpide horietan ez dago generoen araberrako alde esanguratsurik.

Baina emakumezkoek nahiz gizonezkoek eman dituzten erantzunak bereiziz gero, alde esanguratsua dago zenbait irizpide erabiltzeko garaian; esaterako: «Beste pertsona nire adinekoa edo ni baino gazteagoa izatea» emakumeen arteko % 30,9k eta gizonezkoen arteko % 56,4k aukeratu du; eta «Beste pertsona gizonezkoa izatea» emakumezkoen arteko % 8,7k eta gizonezkoen arteko % 43k aukeratu du.

Galdera itxietan jasotako erantzunekin bat egiten dute galdera irekietan jasotako erantzunek ere. Emandako erantzunen artean nabarmentzen direnak hauek iruditu zaizkigu: batetik, solaskideari hika egin ala ez erabakitzeko erabiltzen den irizpidea beste pertsonak hika egitea dela aipatu da (alegia, beste pertsonak hika egiten duela jakitea). Hona hemen parte-hartzaile zenbaiten hitzak, ideia hori ilustratzeko:

- (1) [IT53-151] Kosta egiten zait hika egitea niri zuka egiten badidate.
- (2) [IT53-604] Besteek hika egiten badidate, hika egiten dut. Bestela zuka.

Bestalde, solaskideari hika egin ala ez erabakitzeko orduan hartzailearen jatorri geografikoa kontuan hartzen dela esan dute. Hona hemen ideia hori zenbait parte-hartzailearen hitzetan adierazita:

- (3) [IT53-564] Azpeitiarrak ez direnekin ezin dut. Azpeititik kanpora arraro begiratzzen dizute.
- (4) [IT46-422] Urola bailaran hika erraz hitz egiten dugun arren, hemendik kanpo, inguruetan, ez da hain erraz... ez dago ohiturarik edo ez dute dominatzen.

Bertso-munduan jasotako erantzunak ere norabide berekoak dira. Aurrean daukazunari hika egin ala ez erabakitzeke irizpidea beste pertsonak hika egitea dela esan du Goierriko (Gipuzkoa) 41 urteko gizonetzkoak:

- (5) [...] gogorra da zuk norbaiti hika egitea ez badizu hika erantzuten, [...] Zuk hika egin eta haiek zuka erantzutea da erantzun guztiak zaplazteko bat izango balira bezala. Eta gogorra egiten da.

Eta aurrean daukazunaren jatorri geografikoa aipatu du Beterriko (Gipuzkoa) 52 urteko gizonetzkoak (Bilbokoa ez den elkarrizketatzaileari hitz egitean):

- (6) [ELK-10] [...] jakin banu zu bilbotarra zarela seguru asko zuka hasiko nintzen.

Baina aurrez aipatu gabeko beste bi irizpide ere aipatu dituzte. Hartzaileak euskalkia jakitea hartzen duela irizpidetzat esan du Urolako (Gipuzkoa) 28 urteko emakumezkoak:

- (7) [ELK-03] [...] niretzat hika, ordea, euskalkiaren parte da. [...] Nik hika azkoitia-
rrez bakarrik egiten dut. Batuan ez dut behin ere egin...

Eta euskaldun berria ez izatea hartzen duela irizpidetzat aipatu dut Beterriko (Gipuzkoa) 52 urteko gizonetzkoak:

- (8) [ELK-10] Ikusten badut euskaldun berria, edo ikasten ari dena edo... zukara pasatzen naiz.

Beraz, solaskideari zuka edo hika egin erabakitzeke kontuan hartu ohi diren irizpideen artean galde-sortako erantzun itxietan aipatu dira beste pertsonarekin konfiantza handia edukitzea eta beste pertsona ezaguna izatea. Bai galde-sortako erantzun itxietan, bai irekietan, bai bertsolariei egindako elkarrizketetan errepikatu da beste pertsonak hika egiten jakitea. Horrez gain, galde-sortako erantzun irekietan eta bertsolariei egindako elkarrizketetan hartzailearen jatorri geografikoa irizpidetzat hartzen dela esan da. Eta, horiez gain, hartzaileak euskalkia jakitea eta hartzailea euskaldun berria ez izatea ere irizpidetzat hartzen direla atera da elkarrizketetan.

4.2. Ba al dago parekotasunik zukatik hikorako eta gaztelaniatik euskararako hizkuntza-muden artean?

Galdera honi erantzuteko bertsolaritzari buruzko ikerketako elkarrizketetan bildutakoak erakutsiko ditugu. Egiten dugun galderari buruz jasotako erantzunen arabera, erantzuna baiezkoa izango litzateke. Alegia, badaudela parekotasunak.

Esate baterako, Beterriko (Gipuzkoa) 33 urteko emakumezkoak pareko ikusten ditu hika hiztun berriek sentitzen dituztenak eta euskaldun berriek sentitzen dituztenak:

- (9) [ELK-07] ... biolentatu egin behar duzu pixka bat zure burua hika egiteko, intseguritatea daukazunez, euskaldun berriaren bastante antzeko zerbait iruditzen zait... Eta bertso-afari batean, Bilbon, ausartuko nintzateke, eta Abaltzisketan ez. Bilbon ez zaitu desautorizatuko hika gaizki egiteak.

Tolosaldeko (Gipuzkoa) 40 urteko emakumezkoak elkarrizketa asimétrikoetan (zuka-hika, gaztelania-euskara) gertatzen direnak alderatzen ditu:

- (10) [ELK-04] Gero niri ez zait batere inkomodoa egiten ni berari hika eta bera niri zuka, baina batzuetan konturatzen naiz oharkabean pasatzen zaidala hori. Alde ederra litzateke baita ere nik euskaraz egin eta beraiek erdaraz erantzungo balidate, ez? Biok erdaraz aritu orde.

Eta Debabarrenako (Gipuzkoa) 34 urteko emakumezkoak hizkuntza berri bat ikastea sentitzen direnekin alderatzen du zukatik hikorako saltoa, *artifizialtasun* eta *benetakotasun* kontzeptuei erreferentzia eginez:

- (11) [ELK-07] ... nik nire burua arrotz sentitzen dut hika ari naizenean, eta da pixka bat beste hizkuntza batean ari naizenean bezala, eta saiatu izan naiz, baina ez dut inoiz lortu. [...] sentitu dezaket horrelako konplexu moduko bat, nahiko nukee-lako haiek bezain erraz erabili, baina niretzat ez da, eta orduan pixka bat elkarrizketa elebidunetan, alderantziz; erdaldun batekin nik euskaraz aritzerakoan egiten dudana ariketa bezala, esatearena, eman dezake artifiziala, baina nolabait artifizialtasun hori definizio bat da guk jartzen dioguna. Zergatik izan behar du?
- (12) *Es que* hori da lotzea batua artifizialtasunarekin, baina *es que* Oihana Bartraren hizkuntza kolokiala batua da, eta Xabi Payaren hitanoa zergatik da artifiziala, beranduago ikasi duelako? Berak ez dauka eskubiderik erreminta horren bitartez bere hizkuntzari beste txispa bat ateratzeko? Jakina baietz. *Es que* bestea da nolabait esatea, gurea da naturala eta autentikoa, eta beste hori dena da ikasia, artifiziala, eta balio apalagokoa, eta iruditzen zait kontraproduzentea dela horrela pentsatzea.

Azpi-atal honen hasieran esan bezala, gure ikerketako emaitzetan jaso dugu parekotasunak daudela zukatik hikorako eta gaztelaniatik euskararako hizkuntza-muden artean. Bi adierazpenetan azpimarratu da pareko ikusten dituztela hika hiztun berriek eta euskaldun berriek edo hizkuntza berri bat ikasten dutenek senti ditzaketanak. Elkarriketa asimetrikoetan gertatzen diren egoerak ere antzekoak izan litezkeela adierazi da.

5. Ondorioak

Lan honen emaitzak mahai gainean jarritako ikerketa-galderen arabera aurkeztu ditugu, eta logika berari jarraikiz emango dugu atera ditugun ondorio eta hausnarketan berri ere.

5.1. Zein irizpideren arabera erabakitzen du hiztunak solaskideari zuka edo hika egitea?

Teoriaren atalean ikusi dugunez, Alberdi (1993, 1994) izan da hitanoaren erabilera baldintzatzen duten aldagaiak identifikatu eta zerrendatu dituena. Gure azterlanean azaleratu diren aldagaiak, oro har, bat egiten dute Alberdik (1993, 1994) aipatutakoekin. Alberdiren lanetan ez bezala, gurean agertu den aldagai bat izan da «solaskidea euskaldun zaharra izatea», eta horrekin lotzen da Artetxek (2018) esandakoen artean aipatu

dugun *passing* kontzeptua. Badirudi *hikaren munduan* sartzeko, onartua izango bada, benetakotasunarekin, autentikotasunarekin lotzen diren ezaugarriak eskuratu behar dituela hiztunak. Eta ezaugarri horiez hitz egitean Echeverriak (2001) nahiz Ortegak *et al.*-ek (2015) euskaraz bizitzea, giro edo inguru euskaldunean harremanak izatea edota euskalkia ezagutu eta erabiltzea aipatzen dituzte, besteak beste. Gure ikerketan ere ikusi dugunez, badirudi ezaugarri horien jabe izateak neurri batean zilegizta lezakeela hiztun berria, edo, kasu honetan, hika hiztun berria, eta euskaldun zaharrak, jatorrizko hiztunak, etxetikoak, hiztun natibo euskalkidunak, berriz, sarbide zuzena izango lukeela hikako harremanetan.

Ikerketa-galderari erantzuna ematek haratago joanda, hiru ideia aipatu nahi ginituzke hausnarketa gisara. Batetik, pertsona bati hika egin ala ez erabakitzeko orduan jarraitzen diren irizpideei buruzko datuak ematearekin batera generoen arabera desberdintasunak ere erakutsi ditugu. Ikerlan honen helburua ez izan arren generoen arteko desberdintasunetan fokua jartzea, uste dugu hitanoari dagokionez kontuan hartu beharreko faktore bat dela eta aldagai hori aztertzeak ekarpen mamitsuak egin diezazkiokeela soziolinguistikaren eremuari.

Bestalde, hika hiztunari galdetutakoan solaskideari hika egin ala ez erabakitzeko orduan zein irizpide jarraitzen duen, *konfiantza izatea* da gehien aipatzen den ideietako bat. Hala ere, gure ustea da nahiz eta hika hiztunen artean oso errota dagoen erantzuna izan, benetan ez dela *konfiantza* pisu gehien daukan irizpidea eta Alberdik (1993, 1994) identifikatutako beste zenbait irizpide esanguratsuagoak direla. *Konfiantza izate* hori, *izatez*, nahikoa kontzeptu lausoa izan liteke eta iruditzen zaigu interesgarria izango litzatekeela *konfiantza* iradokitzen diguten ezaugarri zehatzak zein diren identifikatzea.

Azkenik, pertsona bati hika egiteko solaskide horrek bete behar dituen baldintzak asko izan litezkeela ikusi dugu: parekoak euskaldun zaharra izan behar du, edo iruditu behar zaigu, ez dezala euskara batuan hitz egin, gure adinekoa edo gazteagoa izan dadila, gizonezkoa, ezaguna behar du izan, eta gainera konfiantzazko tratua izan behar dugu berarekin. Badirudi solaskideak baldintza horiek bete ezean zaila dela berari hika egiten hastea. Dena den, iruditzen zaigu hitanoak biziraun dezan nahi badugu irizpide horiek pixka bat malgutzera komenigarria izango litzatekeela.

5.2. Parekotasunik ba al dago zukatik hikarako eta gaztelaniatik euskararako hizkuntza-muden artean?

Kasu honetan galderari ematen diogun erantzuna baiezkoa da. Gure lanean jaso dugunaren arabera, hizkuntza-ohiturak aldatzeko fenomenoaren baitan kokatuko litzateke zukatik hikarako muda. Prozesu batean zein bestean gertatzen diren fenomenoak parekotzat ikusten dituzte gure ikerketako subjektuek.

Hiztun berriak maiz ez du euskal hiztun oso gisa ikusten bere burua, eta euskaraz hitz egiteko senti dezakeen zilegitasun-eskasia modu antzekoan bizi dezake euskaldunak, zuka egitetik hika egitera pasa nahi badu. Zenbait ikerketatan ikusi da hitanoa dela euskaldunen kasuan benetakotasuna erakusten duen ezaugarrietako bat (Beitia, 2017; Echeverria, 2001) eta horrek euskal hiztunen baitan ezartzen duen pre-

sioa hizkuntza berri bat ikastea xede-hizkuntza horretako benetakotasun-kanonek ezartzen dituztenen parekoa izan daiteke. Gure lanean ikusi dugunaren arabera, beldur edo deserosotasun horiek berdin-berdin bizitzen dituzte euskara hiztun berriek zein hika hiztun berriek.

Esandakoen harira sortu zaigun kezka honakoa da: ez al gara euskararekin zegoen diskurtsoa errepikatzen ari hitanoarekin? Alegia, *hitanoa ezin da ikasi, berezkoa izan behar du hiztunak, natural atera behar zaio...* Horrelako pentsaerak entzun izan dira euskarari buruz ere, baina benetakotasun-kanonak aldakorrek izan daitezkeela ikusi dugu eta pixkanaka diskurtso horiek eraldatzen eta testuinguru berrietara egokitzen joango direlako ustea daukagu.

Diskurtso horren barruan bada beste bat *jator vs artifizial* dikotomiaren inguruan: euskalkia zen jatorra, batua artifiziala; baina gai horri buruz egon den eztabaidak, Euskal Herrian dauzkagun testuinguru soziolinguistiko guztiak kontuan hartuta eta euskararen osasuna/iraupena xede izanda, mesede baino kalte gehiago ez ote digun egiten pentsatu beharrean gaudela iruditzen zaigu. Eta ideia hori gure gaira ekarrita, hitanoa euskalkiekin lotu izan den arren, euskara batuak ere ematen du bide hika egiteko. Komunikabideetan egin dira hitano batua erabiltzeko saiakerak eta uste dugu hitano batuak oraindik ez duela bere tokirik aurkitu, baina horretarako aukera egon daitekeela.

Eta, amaitzeko, guk hitanoaren esparru txiki honetara ekarri dugu ikerketa, baina iruditzen zaigu zukaren eta hikaren artean gertatzen diren fenomenoek azterketan ikusitakoak transferitu daitezkeela euskara eta gaztelania/frantsesaren dikotomiara, baita beste hizkuntza gutxitu batzuen testuingurura ere. Kanpoan egindakoak gure marko teorikorako oso baliagarri diren bezala, hemengoak ere baliatu ahal izango dituztela hemendik kanpora.

Erreferentziak

- Alberdi, X. (1986). Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II Markina aldeko kasua. *ASJU*, 20, 419-486.
- Alberdi, X. (1993). Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak. *FLV*, 64, 425-442.
- Alberdi, X. (1994). Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. *Euskera*, 39, 983-993.
- Alberdi, X. (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker 9. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Alberdi, X. (d. g.). Euskararen tratamenduak. In Euskara Institutua & UPV/EHU (koord.), *Sareko euskal gramatika*. <http://www.ehu.eus/seg/gizt/5/1> helbidetik eskuratua.
- Artetxe, M. (2018). Hiztun berriak eta bertso-mundua. Legitimatua (ha)la auzitan jarri? *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 109(4), 45-72.
- Augustyniak, A. & Higham, G. (2019). Contesting sub-state integration policies: migrant new speakers as stakeholders in language regimes. *Language Policy*, 1-19. doi: 10.1007/s10993-019-09517-0
- Beitia, I. (2017). Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 103, 139-166.

- Brennan, S. & O'Rourke, B. (2018). Commercialising the cúpla focal: New speakers, language ownership, and the promotion of Irish as a business resource. *Language in Society*, 48, 125-145. doi: 10.1017/S0047404518001148
- Cenoz, J. (2009). *Towards multilingual education: Basque educational research from an international perspective*. Bristol-Buffalo-Toronto: Multilingual Matters.
- Dewaele, J. M. (2013). Multilingualism and emotions. In C. A. Chapelle (arg.), *The encyclopedia of applied linguistics* (1-7. or.). Oxford: Wiley-Blackwell. doi: 10.1002/9781405198431.wbeal0795
- Echeverria, B. (2001). Privileging masculinity in the social construction of Basque identity. *Nations and Nationalism*, 7(3), 339-363.
- Echeverria, B. (2003). Language ideologies and practices in (en)gendering the Basque nation. *Language in Society*, 32, 383-413.
- Errington, J. (1985). On the nature of the sociolinguistic sign: describing the Javanese speech levels. In E. Mertz & R. J. Parmentier (arg.), *Semiotic mediation* (287-310. or.). Orlando: Academic Press.
- Kasares, P. (2015). Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 94(1), 13-45.
- Hornsby, M. (2005). Néo-Breton and questions of authenticity. *Estudios de Sociolingüística*, 6(2), 191-218. doi: 10.1558/sols.v6i2.191
- O'Rourke, B. & Ramallo, F. (2011). The native-non-native dichotomy in minority language contexts: comparisons between Irish and Galician. *Language Problems and Language Planning*, 35(2), 139-160. doi: 10.1075/lplp.35.2.03oro
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Uranga, B. (2015). Linguistic identity among new speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language*, 231, 85-105. doi: 10.1515/ijsl-2014-0033
- Ozaita, J. (2014). Tolosaldeko gazteek (16-28) hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktika. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 91, 83-103.
- Piller, I. (2002). Passing for a native speaker. *Journal of Sociolinguistics*, 6(2), 179-206. doi: 10.1111/1467-9481.00184
- Pujolar, J. & Gonzalez, I. (2013). Linguistic *mudes* and the de-ethnicization of language choice in Catalonia. *International Journal of bilingual education and bilingualism*, 16(2), 138-153. doi: 10.1080/13670050.2012.720664
- Woolard, K. A. (2008). Language and identity choice in Catalonia. The interplay of contrasting ideologies of linguistic authority. In K. Suselbeck, U. Muhlschlegel & P. Masson (arg.), *Lengua, nación e identidad: La regulación del plurilingüismo en España y América Latina* (303-323. or.). Madrid: Iberoamericana.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasanaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613